

Kultura politiko berriari buruzko eztabaida prozesua: Lanerako 2. dokumentua

**KULTURA POLITIKO BERRI BATEN BEHARRARI BURUZKO HURBILKETA PLURALISTA:  
LANTALDEAREN IKUSPEGIAK ETA PROPOSAMENAK**

Dokumentu honetan, *Kultura Politiko Berriari* buruzko lantaldean parte hartzen dutenek demokrazia liberalen krisia eta 1. lan dokumentuan planteatutako kultura politiko berri baten beharra interpretatzeko azaldu dituzten ikuspegiak jasotzen dira.

**Eraldaketa, eztabaidaren jomuga**

Etorkizuna eraikiz Think Tank proiektuak planteatzen duen prozesuan, ikaskuntza gauzatzen da ekintza eraldatzailean eta ekintza eraldatzaileerako. Horregatik, parte hartzaileek, eztabaidarako gune partekatu bat izateaz gain, proiektu/prozesu batzuk dituzte (batzuetan partekatuak, beste batzuetan ez), eta horietan eztabaidagai diren kontzeptu eta esparruekin esperimentatu dezakete.

Hauek dira parte hartzaileek definitutako esperimentazio espazioak:

- Gobernantzako ekosisteman denok elkarrekin proiektu bat, erreferentzialtasun berri bat eraikitzeko lurraldean
- Etorkizuna eraikiz diseinatzeko eta garatzeko prozesua (2 pertsonak aipatu dute)
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren elkarlaneko gobernantza (2 pertsonak aipatu dute)
- GFAko politikarien eta teknikarien arteko harremanak
- Hausnarketa Estrategikoko Unitatea – GFA
- Herritarren Partaidetzako Zuzendaritzaren proiektuak: Aurrekontu irekiak, Erakundearteko espazioa, Gipuzkoako herritartasun eskola, Lankidetzeta plataforma.
- Etorkizuna Eraikiz Think Tank-aren fasilitazioa
- Arantzazuko Gizarte Berrikuntza Laborategia
- BADALAB hizkuntza berrikuntzako laborategia (lehen IBILI zena)
- Debagoiena 2030 (2 pertsonak aipatu dute)
- OCDE-CKIC -ekin abian den prozesuaren markoan
- MONDRAGON
- Herrigintzaren Berrikuntzan Aditu Titulua, Mondragon Unibertsitatea

Proiektu/prozesu horien esparruan demokrazia liberalen eta kultura politiko berri baten krisiaren eragina non ikus daitekeen galdetuta, honako erantzun hauek jaso dira:

- Ezegonkortasuna, ziurgabetasuna, ziurtasunik eza, prekarietatea edo desberdintasuna dira egiteko modu berri horren sorrera baldintzatu duten faktoreak.
- Toki-erakundeek (udalak, mankomunitateak) badakite jada ezin dituztela gizarteak eskatzen dituen zerbitzuak eskaini [...] Ados gaude azterketan eta hartu beharreko norabidean, baina ez dakigu nola.
- "Demokraziaren azpiegitura teknologikoa". Nire ustez, hor ari dira hartzen gure etorkizuna baldintzatuko duten erabakiak, eta hor egongo dira eztabaida interesgarrienak: adimen artifiziala eta demokrazia, berdintasuna algoritmoetan, robotizazioak gure bizitzetan duen eragina eta lanaren etorkizuna, plataformen ekonomia...
- Nire egiteko nagusia Etorkizuna Eraikiz-en baitan, hausnarketa estrategikoa sustatzea da, eta zehazki, COVID-19aren osteko egoerari buruzko hausnarketa bultzatzea. Hortaz, nire egitekoa zuzenean lotuta dago politikaren eta hiritarren esparruan pandemiaren krisi multifaktorialak eragindako aldaketak ezagutzearekin, eta hortaz, kultura politikoaren azterketarekin.
- Nire lana Etorkizuna Eraikiz Think Tank-aren fasilitazioan gauzatuko da. Kultura politiko berri baten beharra politikak espazio publikoa betetzeko gaur egun duen moduaren eta eraldaketarako ikasketak eskatzen dituen baldintzen arteko talkan ikusten dut.

Galdera horri emandako erantzunen kopurua gainerako galderena baino nabarmen txikiagoa izateak esan nahi du, nahiz eta taldeak bat egin demokrazia liberalen krisiari eta kultura politiko berri baten beharrari buruzko gogoeta teorikoarekin, eguneroko lanean oraindik zaila dela identifikatzea krisi horren ondorioak eta, beraz, eraldaketa palanka potentzialak.

### **Kultura politiko berriari buruzko begiradak**

Eztabaida taldeak demokrazia liberalen krisia eta kultura politiko berri baten beharra hartu ditu jada eztabaida esparrutzat. Nolanahi ere, parte hartzaile bakoitzak bere ikuspegia du gai horri buruz, eta, ondorioz, bakoitzak bere erronkak lehenesten ditu. Jarraian, parte hartzaile bakoitzaren esaldi bat dator, alderdi jakin bat nabarmentzen duena, eta kultura politiko berriari buruzko begirada horrekin bat datozen erronken zerrenda bat. Esaldiak epigrafe batzuen barruan multzokatu dira.

### **KRISIAREN IZAERA: IKUSPEGI SISTEMIKOA, KONPLEXUTASUNA ETA AURREA HARTZEKO GAITASUNA**

- **Krisialdi sistemiko** baten aurrean gaude, larrialdi sozio-ekonomikoak eta ingurumenekoak uztartzen dituen eta indarrean dauden egitura politiko eta demokratikoei zuzenean eragiten diena. Krisiaren **izaera konplexu** hori dela eta, zaila da konponbide linealak, partzialak edo erantzunetara mugatutakoak bilatzea. Hona hemen erronkak:
  - Tresna berriak diseinatzea, gizarte eta kultura aldaketak denbora errealean ulertzeko.
  - Gaitasun eta espazio berriak prestatzea, aldaketa horiek guztion artean interpretatzeko (administrazioa, enpresak, gizarte zibila) eta informazioa gaiaren eta eremu geografikoaren arabera banatu ahal izateko.

- Espazioak sortzea, administrazio, gizarte erakunde, enpresa eta gizarte zibilaren artean irtenbide berriak batera sortzea sistematizatzeko.
- Administrazio publikoei beren ekimenak diru zorro gisa kudeatzen uztea, ez proiektu isolatu gisa.
- Lankidetzeta publiko-pribatuak finantzatzeko tresna berriak ezartzea. Eremu horietan guztietan ezagutza partzialak ditugu, baina ez dakigu elementu horiek guztiak nola txertatu lurralde mailan.

#### **ARAZO KONPLEXUEI ERANTZUTEN POLITIKAK DITUEN ZAILTASUNAK**

- **Gizartea aldatu egin da eta gobernatzeko modu politikoak, berriz, oso gutxi** Erronkak:
  - Gobernatu nahi den gizarteari ondo entzutea eta egiten dituen eskaerak kudeatzea, nahiz eta batzuetan kontraesankorrak izan.
  - Denbora gehiago igarotzea ikasten, kontrolatzen baino.
  - Etorkizuneko krisiei aurrea hartzeko gure tresnak hobetzea, pentsamendu estrategiko gehiago garatzea.
- **Desatxikimendu politiko eta egitura publikoen ezintasuna** egungo **erronka konplexuei** aurre egiteko. Honen baitan erronkak:
  - Talde lana eta kolaborazioa
  - Maila globala eta tokian tokikoa bateratzea
  - Berrikuntza eta garapen teknologikoaren norabidea
  - Lidergoa
  - Gizartearen autoeraketa
  - Harreman eredu berriak
  - Herri ekimenak eta erakundeen ahalmenak uztartzea
  - Eztanda sozialak
  - Giza faktorea, gizartea, komunitatea lantzea
  - Belaunaldi berrien beharra
- Ordezkatzeko eta politika publikoak kudeatzeko egitura politikoak ahultzea. Horrekin lotutako erronkak:
  - Garapen ekonomikorako, erakunde "inklusiboak" izatea
  - Politika eta kudeaketa publikoa profesionalizatzea.
  - Maila politikoaren eta teknikoaren arteko elkarreragina hobetzea.
  - Bi "planoak" (politikoa eta teknikoa) bide paraleloetatik joate hori gainditu behar dugu, ez daitezen aritu, alde batetik, erantzukizun politikoak duten pertsonak "politika egiten" (edo kritikoki, komunikazio hutsa egiten); eta, bestetik, teknikariak, eguneroko lanaren zama eramaten (edo ikuspegi kritikotik, praktikan gauzez arduratzen).

#### **PERTSONA ETA BERE BALIOAK KRISIAREN ERDIGUNEAN**

- Pertsonaren **jarrerak, portaerak** eta **ekintzak** orientatzen dituzten **BALIOAK** garrantzitsuak dira instituzioak, erregulazioak, aukera-espektatibak, egoera sozio-ekonomikoa, edota erakundeen arteko adostasun-maila eta baliabideak mobilizatzeko gaitasunarekin batera. Erronka, ondorengo bi hipotesiak lantzea da:

- Herri-erakundeei orduan eta gehiago eskatu, atsekabe politikoa ere handiagoa, eta interesen arteko konkurrentzia ere bai. Hipotesia plano indibidualean eta asoziatiboan landu daiteke;
- Erantzukizun indibiduala orduan eta handiagoa, erakundeen arteko lankidetzak, baliabideen mobilizazioa eta eraginkortasuna ere bideragarriagoak dira.

#### IZAERA KOMUNITARIOAREN INDARTZEA

- Kultura politiko berriaren azken helburua da komunitatearen garapena, bere kide guztiei oinarritzko eskubideak, zaintza egokia eta bizitza duina bermatuko dien komunitatearena. Erronkak:
  - epe luzeko jomuga bateratua eskaini behar zaie garapenaren eragile diren interes-talde guztiei
  - lankidetzak publiko-sozialari ematea formulazio moderno eta homologatua, eta tresna juridikoak nahiz ekonomikoak finkatzea lankidetzak hori gero eta sendoagoa eta handiagoa izan dadin
  - Lankidetzazko gobernantza (LG) sistematikoki eraikitzea
  - Gipuzkoan ematen diren baldintzak baliatzea LGren esparruan esperimentu aurreratuak egiteko
  - LG garatzeko esparru autonomoak sortzea (EE ez da oraindik, GFaren ekimena izaten jarraitzen du)
- Kultura politiko berri honen eraikuntza **lurraldeko eragileen bitartez**
  - Erronka da bide edo mekanismo egokiak aurkitzea proposatutako gobernantza kolektiboak aukera eman dezan planteatutako lurralde erronkei eraginkortasunez heltzeko, gizarte osoan benetako inpaktua izanda eta ez talde/eragile jakin batzuen mesedetan.

#### GOBERNU ONA ETA HERRITARREN PARTE HARTZEA

- Herritarren parte hartzea, herritarrek Foru Aldundiari dagozkion gobernu eta administrazio funtzioei buruzko erabakiak hartzean parte hartze aktiboa izateko duten gaitasun gisa ulertuta. Honi lotutako erronkak:
  - Administrazioaren kontzeptualizazio berria ahalbidetzea, eraikuntza kolektiboko prozesu horren garapena erraztuko duen espazio interaktibo eta integratzaile bat sortuz.
  - Herritarrekin batera sortzeko, harremanak izateko eta lan egiteko prozesu berriak bideratzeko baldintzak sortzea, administrazioaren bezero soil gisa ulertutako herritar ereduak gaindituz.
- Gobernu ona, eztabaida prozesuaren erdigune gisa. Erronkak:
  - Herritarrek erakartzea, elkarlaneko gobernantzarekin bat egin dezaten
  - Herritarren konfiantza gureganatzea
  - Gardentasun, gertutasun, austeritate eta zintzotasun balioak izatea
  - Administrazio elektronikoa bultzatzea, eta administrazioaren barruko harremanak eraldatzea

## KULTURA POLITIKO BERRIA ERAIKITZEKO HURBILKETA METODOLOGIKOAK

- Kultura demokratikoa indartzeko beharrezko **ezagutza propioa, hausnarketa eta ekintzarako bidea** jorratzea dira. Erronkak:
  - Kontzeptualizazioa partekatu xamarra izatea
  - Lehenetsuna zeri eman behar zaion zehaztea: nire ustez kultura demokratikoaren indartzea izan beharko luke erronka nagusia
  - Kultura demokratikoaz ari garenean, zertaz ari garen finkatzea: abstraktuan ari gara, edo konkretuki balio, jokabide eta jarrera batzuez ari gara
  - Galdera horiek guztiak kontuan izanda, estrategia, bide eta ekintza konketuak definitzea
- **Subjetibitatea** eraldaketarako indar moduan
  - Badira eraldaketaren inguruko literaturan eta politikan maitasunaren kontzeptua landu dutenak, baina egungo politikagintzan kontzeptu hau ez da txertatzen. Erronka bat kontzeptu honek eraldaketarako duen potentzialitatea esploratzea da
- Nire ikuspegia **kultura politiko berrirako ekintza ikerketa** moduan izendatu daiteke. Erronkak:
  - Plangintzan oinarritutako markoetatik (lehenik pentsatu eta ondoren egin), prozesuen ikuspegi emergenteetara pasatzea (eginez pentsatu eta pentsatuz egin, praxia)
  - Esperimentazioa gure egunerokotasunetik at dauden “proiektu” moduan ulertu beharrean, gure eguneroko lanarekin esperimentatzea
  - Dialogoaren kontzeptu berri bat praktikan garatzea, elkarri egiten dugunaren berri eman beharrean elkar-eragina landuz
  - Ezagutza eta boterearen arteko harremanak hobeto ezagutu eta eraldaketarako erabiltzea
  - Ikasketa prozesuak lidergo partekatuaren eraketarako prozesu bilakatzea